



Elur Zaldua, Zubietako Herri jaien jai batzordeko kidea. OLATZ BALDA

Gau giro aldaketa, Santio jaiak berritzeko

Hilaren 24an lehertuko da festa Zubietan, eta hortik aurrera, zortzi egun izango dituzte herritarrek Santio jaiak ospatzeko. Aurten, kontzertu aldaketez gain, bertso bazkaria egingo dute aurrenekoz.

Olatz Balda Sagartzazu

Osorako «indartsu» datoz Zubietako Herri jaiak aurten. Hala iragarri du Elur Zaldua jai batzordeko kideak (Zubietan, 2004) hilaren 24tik 31era bitarteko egitarau berria aurkeztu duenean. Zubietarrek zortzi egun izango dituzte festa giroari zuku guztia atera eta herrikideen arteko egitasmoak behar bezala ospatzeko. Urteroko moduan, adin tarte guztietarako egitarau zabala ondu du jai batzordeak eta goiz, arratsalde eta gau partean jarduerak ez dira faltatuko.

Jai batzordeko Whatsapp taldean urte hasieran elkarbanatu zituzten lehen mezuak, eta geroztik, bilera andana egin dituzte kideek. «Taldean 35 gara, baina bileretan hamar edo hamabost agertzen gara», azaldu du Zalduek. Gazte jendeak osatzen du taldea bere osotasunean —zaharrena ez da 30 urtera ailegatzen—; batzuei «esperientzia pixka bat» falta zaie, baina hori ez dute oztopo herriko jaien antolakuntza gogotsu hartzeko: «Burokrazia eta kontratuak izaten

dira konplikatuena, baina pixkanaka, joango gara esperientzia eskuratzen», adierazi du kideak.

Prestakuntza oro abiatu baino lehen, oholta gainean egongo diren taldeak finkatzea izan ohi dute aurreneko jomuga. Aurten, baina, ohi baino zailagoa suertatu zaie lehen erabakiak hartzea: «Mila bozketa egin ditugu eta buelta asko eman dizkiegu hartutako erabakiei. Hori hobetu behar dugu datorren urterako». Denboran «gehiegi» luzatu izanak, aldaketak eragin ditu hasierako planteamenduan, baina jai batzordeko kideak pozik daude lortutako programarekin.

Aldaketaren hautua

Aurten, ohi moduan, hilaren 24, 27 eta 30 izango dituzte parranda egun nagusiak. Jaien lehen egunean, Itzal taldearekin astinduko dituzte gorputzak; 27an, berriz, Trikidantz, Bad Sound System eta Txolas DJ-a izango dituzte pilotalekua girotzen; eta Gaurpasa egunean —hilaren 30a— Ithaka, Xiberoots eta Fantasia DJ-a arituko dira oholta gainean.

Zalduak aitortu du «jendea harrituta» gerturatu zaiela egitarauan Gozategi taldearen falta sumatu dutenean. Talde oriotarrak urte mordo daramatza herria dantzan jartzen. Aurten, ordea, tradizioa apurtu eta talde berriei espazioa eskaintzeko hautua hartu dute jai batzordeko kideek: «Barruko eztabaida bat izanda, batzuk aldaketaren aldekoak zirelako. Iaz aldatzekoak ginen, baina azkenean, aurten hartu dugu erabakia».

Oholtzatik kanpo ere aldaketak izango dituztela iragarri du Zalduak. Hilaren 25ean, Patxi eta Konpainia izango dute bueltan, azken urtean euren falta sumatu zen eta. Hilaren 27an, berriz, bertso bazkaria egingo dute aurrenekoz, Eli Pagola eta Eñaut Martikorenarekin, eta festak luze joko duela iragarrita, Gurdi Rock jaialdia arratsaldera lekualdatzea erabaki dute: «Larunbata tokatzen denez, arratsaldetan abiatuko ditugu kontzertuak». Biharamunean, berriz, Gastronomía eguna egingo dute indarrak berritzeko. Besteak beste, krokepotea eta patata tortilla txapelketa antolatu dituzte jai batzordeko kideek.

Berritasunak berritasun, tradizioari eutsiko diote Zubietan, eta ohi moduan, Santio eta San Inazio egunetako mezak, herri kirolak, Ipar Euskal Herriko jokoak eta herritarren arteko errebote partida ez dira faltatuko: «Errebote partida sakratua da, hori bai ezin dugula kendu». ●



ASTEAZKENA 24

19:00

Txupinazoa eta buruhandiak. Jarraian, txosnen irekiera Elene eta Anuek girotuta.

21:00

Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik. Ondoren, Itzal taldearekin dantzaldia.

OSTEGUNA 25

Santio eguna

09:00

Esnadeia, Donostiako Txistulari Bandarekin.

11:00

Meza nagusia. Ondoren, hamaiketako, Joko Garbi elkartearen eskutik, eta soka dantza.



ARATZ
zabaleta anaiak

Ondo pasa jaiak!

Igara Bidea, 15,
20018 Donostia, Gipuzkoa
Tel.:943-21 92 04



17:30

Patxi eta Konpainiarekin dantzaldia.

19:30

Bertsolariak: Joanes Ilarregi, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal eta Asier Azpiroz.
Gai jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

OSTIRALA 26

Oilasko biltzaile eguna

06:00

Oilasko biltzaileen irteera, Ane eta Alazne trikitilariarekin alaituta.

14:30

Oilasko biltzaileen iritsiera.

LARUNBATA 27

Jubilatuen eguna

12:00 • **Plazan**

Sagardo dastaketa eta pintxoak.

14:00 • **Joko Garbi elkartean**

Jubilatuen bazkaria.

15:00

Bertso bazkaria. Ondoren Gurdi Rock.

17:30

Desafiyua. Jarraian, buruhandiak.

19:00 • **Plazan**

Sardin eta piper jatea.



20:00

Bingoa.

23:00

Kontzertuak: Trikidantz, Bad Sound System eta Txolas DJ-a.

IGANDEA 28

Gastronomia eguna

14:30

Patata tortilla lehiaketa.

19:00

Bingoa. Ondoren, Ibey Beatboxeren emanaldia.

19:30

Krokepote txosnan.

ASTELEHENA 29

Umeen eguna

10:00

Jolasen hasiera.

14:00

Umeen bazkariak: bakoitzak berea ekar dezala eta gure kontu postrea eta sorpresa.

16:00

Jolasen jarraipena. Ondoren, txokolate jana eta buruhandiak. Bukatzeko, diskofesta.

bugati
ERRETEGIA

UDAKO ORDUTEGIA Uztaila eta Abuztua

- Asteartea, Asteazkena eta Osteguna
18:30etatik 23:30etara
- Ostirala, Larunbata eta Igandea
12:00etatik 23:30etara

Po de Arrapide, 74 • 20160 Zubieta (Donostia) 943-37 76 62
bugatierretegia@gmail.com • www.bugatierretegia.com

KANPOKO ETA BARRUKO JOLASTOKI HANDIA



ASTEARTEA 30

Gaupasa eguna

16:00

Mus txapelketa (15:30ean, izen ematea).

18:00 · Errebote plazan

Herriko gaztetxoan Yoko Garbi emanaldia.

00:00

Kontzertuak: Ithaka, Xiberoots eta Fantasia DJ-a.



ASTEAZKENA 31

San Inazio eguna

10:30

Meza.

11:30

Zubietarren arteko errebote partida.

14:00

Herri bazkaria.

18:30

Herri kirolak.

Iparraldeko jokoak: Tubi eta Jon Loiola.

Harria jasotzen: Jokin Eizmendi.

23:00

Herriko jaien amaiera traka eta suziriekin.

Ondo pasa
Zubietako Herri Jaietan!

USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

@UsurbilLHII

Ezagutu gure
ikastetxea
www.lhusurbil.eus